



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko otsailaren 7a

23. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen dira, funtzio publikorako edo kontratazio publikorako inolako baldintza ideologikorik edo subjektiborik ez dezaten jar, salbu eta merezimendu, gaitasun eta berdintasun printzipioetan biltzen direnak. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepideko Bera-Endarlatsa tartea Nafarroako bide istripuei buruzko azterlanean sar dezan. Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da "English week, 2014" deialdia kentzeko behar diren kudeaketak egin ditzan. Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskualdeko udaletako arduradunekin bilera egin dezan, presazko neurriak zehazteko, N-121-A errepidean istripu kopurua murrizte aldera. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakume nafarrek haurdunaldia borondatez eteteko duten eskubidea defenda dezan. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da CRANA Fundazioa mantentzeko dezan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zirkulatzailerako abalen lerroa berriz ireki dezan, gutxienez ere 50 milioi euroko zuzkidurarekin. Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu du (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen baitu Merkataritza-arloko Epaitegiak, Fiskaltzak eta Konkurtso-administrazioak beharrezko azterlana eta ikerketa egitea, Bavaria Industrialekapital entitateak INASA itxeko prozesuan izan lezakeen erantzukizuna zedarrizte aldera. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuari eskatzen baitio Europako Gizarte Gutunean ezarritakoaren araberrako araudi-aldaketa bat egin dezan. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, "Asociación de Cazadores Deportivos de Tudela" elkarteari esleitutako Montes del Cierzo eta Monte Alto ehiza-barrutien kudeaketari eta "Asociación local de cazadores y pescadores deportivos de Tudela" elkarteari ezarritako zehapena betetzeari buruzkoa, M.^a Carmen Ochoa Canela andreak egina (13. or.).
- Galdera, mendekotasuna dutenentzat aitortu bai baina oraindik jaso ez diren laguntzei buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (14. or.).
- Galdera, botiken berrordainketaren ondorioen gaineko azterlanari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (14. or.).
- Galdera, Beraingo Ikastetxe Publikoaren eraikinak dituen gabeziak konpontzeko aurreikusitako jarduketari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (15. or.).
- Galdera, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean dauden espazio-beharrizanei buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (16. or.).
- Galdera, BEZarengatik 2014. urterako aurreikusten den diru-bilketari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (16. or.).
- Galdera, 2013ko BEZaren doikuntzen diru-bilketan BEZaren itzulketak 2012tik 2013ra geroratzeko erabakiaren eraginari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak, urtarrilaren 29an Batzordeak egindako saioan, eman zuen informazio baten interpretazioari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Unescori "Errioxako eta Arabako Errioxako ardoaren eta mahastiaren paisaia kulturala" kultur ondare izendatzeko egin den eskaeran Nafarroako udalak sartzeari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (18. or.).
- Galdera, NA-121 errepidean izandako istripu kopuruari eta kopuru hori murrizteko hartu diren edo hartuko diren neurriei buruzkoa, Maite Esporrín Las Heras andreak egina (19. or.).
- Galdera, hezur-muinaren transplantei buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (19. or.).
- Galdera, istripu ugariko tarteen bilakaera analizatze aldera Nafarroako Gobernuak 2014an aztertuko dituen errepideei eta tarteei buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak egina (20. or.).
- Galdera, PA-30 Iparraldeko Ingurabideko eta Artikako errepideko biribilgunean Antsoaingo industrialdeak duen sarbideari buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitaleko operazio-gelen eraikina ekipatzeko errentari buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (21. or.).
- Galdera, 2013ko ekitaldian betearazitako kontusail izendunei buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (22. or.).
- Galdera, Nafarroan landa garapenerako aurreikusitako eta benetan emandako funtsei buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (23. or.).
- Galdera, zerga berriak hitzartzeko prozesuari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (23. or.).
- Galdera, 2007tik aurrera, ostalaritzako sektorean, iruzurraren aurkako borrokaren arloko ikuskaritzarengatik izandako diru-bilketari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (24. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren tributu-arloko helburuei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (24. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko Eriaren Arretarako Unitateko burua kargutik kentzeko arrazoiei buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (25. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Kontuen Ganberako 2014. urterako plantilla organikoa eta erakunde horrek 2013ko abenduaren 31n zituen funtzionarioen zerrenda (26. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen dira, funtzio publikorako edo kontratazio publikorako inolako baldintza ideologikorik edo subjektiborik ez dezaten jar, salbu eta merezimendu, gaitasun eta berdintasun printzipioetan biltzen direnak.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen dira, funtzio publikorako edo kontratazio publikorako inolako baldintza ideologikorik edo subjektiborik ez dezaten jar, salbu eta merezimendu, gaitasun eta berdintasun printzipioetan biltzen direnak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 2014ko urtarrilaren 23ko Osoko Bilkuran aurkeztutako jabelduratik heldu den ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Demokraziaren oinarrietako bat da gizartetik administrazio publikora baldintza-berdintasunean sartu ahal izan diren pertsonen antolatua eta kudeatua egotea administrazio hori.

Funtzionario publikoaren figura –administrazioarekiko leialtasunez eta inpartzialtasunez jarduten eta esku hartzen du, bere sinesmen pertsonalak edo ideologia alde batera utzita– demokraziaren oinarrietako bat eta berme da.

Orain dela gutxi, ordea, funtzio publikorako sarbideak aldatzeko zenbait asmo ezagutu dira, irizpide ideologikoak eta subjektiboak sartzekoak, delitu-mota jakin batzuekin lotutako aurrekari pertsonalei dagokienez; zehazki, terrorismoaren generoaren barruan sartzen direnak. Gisa horretako aldaketa batek zalantzarik gabe ekarriko luke funtzio publikorako sarbidean desberdintasuna, eta baita merezimenduen eta gaitasunaren interpretazio ideologizatu eta subjektibo bat ere.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen ditu funtzio publikorako edo kontratazio publikorako inolako baldintza ideologikorik edo subjektiborik jar ez dezaten, salbu eta merezimendu, gaitasun eta berdintasun printzipioetan biltzen direnak, beren interpretazio jurisprudentzial finkatuan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepideko Bera-Endarlatsa tartea Nafarroako bide istripuei buruzko azterlanean sar dezan.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita N-121-A errepideko Bera-Endarlatsa tartea Nafarroako bide istripuei buruzko azterlanean sar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Sustapen Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, batzordean eztabaidatu eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepideko Bera-Endarlatsa tartea Nafarroako bide istripuei buruzko azterlanean sar dezan.

Beran iragan urtarrilaren 23an izandako trafiko-istripu larriak, zeinak bi hildako eragin baitzituen, berriro ere jarri du mahai gainean Iruñetik Behobiara bitarteko errepideko bide-segurtasunari buruzko eztabaida.

N-121-A errepideko tarte horretan barrena –Nafarroako Gobernuak inbertsio eta hobekuntza handiak egin ditu errepide horretan azken urteotan– 10.000 ibilgailu baino gehiago abiatzen dira egunero. Kopuru horren ehuneko handi bat, % 30etik goiti, ibilgailu astunak dira.

Eremu horren orografia bereziaren ondorioz, klimatologiarekin eta trafikoaren ezaugarriekin batera, N-121 errepidea ezaugarri bereziekiko ardatz bihurtzen da Iruña eta Behobia bitartean; izan ere, nazioarteko, nazioko, eskualdeko nahiz tokiko ibilaldiak elkartzen dira tarte horretan.

Azken urteotan N-121-A errepidean aldiro gertatutako istripuak aintzat hartuta, egoera patxada handiagoz aztertu beharra dago, prebentzio-neurri gehiago hartu ahal izan daitezen, halakorik behar izanez gero.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Belate-Endarlatsa tartea sar dezan –berezi-ki, Beraren eta Endarlatsaren artekoa– errepideen sareko istripu ugariko tarteei eta bide-istripuei buruz Sustapen Departamentuak 2014an eginen duen azterlanean.

2. N-121 errepideko Beraren eta Endarlatsaren arteko tarterako aukera ezberdinei buruzko azterlan tekniko bat egin dezan –besteak beste, seinaleztapen bertikala eta horizontala eta zoladuraren eta peraltearen ezaugarriak–, beste neurri gehigarri batzuk ezarri ahal izan daitezen, istripuak aurreikusten eta murrizten laguntzeko.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da "English week, 2014" deialdia kentzeko behar diren kudeaketak egin ditzan.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen baita "English week, 2014" deialdia kentzeko behar diren kudeaketak egin ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Aurtengo ikasturtera arte, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak egiten zuen ikastetxeek eta haien ikasleek "English week" programan parte hartzeko deialdia.

Jarduera garatzeko, Hezkuntza Departamentuak "Hizkuntzen Ikaskuntzako Nafarroako Zentroa" enpresa publikoaren zerbitzua kontratatzen zuen, ikastetxeentzako deialdia egiten zuen eta ikasleentzako bekak ezartzen zituen.

2013-2014 ikasturte honetan, Hizkuntzen Ikaskuntzako Nafarroako Zentroak egin du deialdia, eta horrek zenbait arazo ekarri ditu, ikasleek berdintasun egoeran parte hartzea eragozten dutenak eta ikastetxeen autonomian eragiten

dutenak jarduera horretan parte hartu ala ez erabakitzerakoan, jadanik ez baita Hezkuntza Departamentutik heldu.

Jarduera horretan parte hartzea erabakitzen duten ikasleek diru-kopuru bat ordaintzen dute bekarik egonen den ala ez jakin aurretik edo bekarik jasoko duten ala ez jakin aurretik; halatan, izena eman dutenek eta deialdian ezarritako diru-kopurua aurreratu dutenek soilik izanen dute beka bat lortzeko modua.

Bestalde, ikasleek parte hartzeak ikastetxeko irakasleek parte hartzea dakar berekin. Jakina, irakasleek eskolako beste zeregin batzuk baztertu behar izaten dituzte; esaterako, jarduera ordaindu ezin dutelako edo familiei interesatzen ez zaielako ikastetxean gelditzen diren ikasleen hezkuntza-arreta. Horrek zenbait galdera sorrarazten ditu: Hezkuntza Departamentukoa ez den enpresa batek ikastetxeen antolamendua baldintzatu al dezake? Gutxienez ere zenbat ikasle eman behar dute izena ikastetxeko irakasleek parte har dezaten? Ikastetxeek zer erantzukizun dute jarduera ordaindu ezin izateagatik jardueran parte hartu ezin duten ikasleei dagokienez?

Deialdi horrek, taxututa dagoen moduan, alde batera uzten du aukera-berdintasuna, eta ez dago behar bezain zehaztuta, Hezkuntza Departamentuak ezartzen dituen beken baitan dagoelako. Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du egin beharreko zuzemenak egin ditzan "English week, 2014" deialdia erretiratzeko eta, betiere, beste deialdi bat egin dezan horren ordez, zeinaren ezarriko baitira ikasleek parte hartzeko baldintza ekonomikoak eta ikastetxeek parte hartzeko baldintzak, beren irakasleei dagokienez.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da eskualdeko udaletako arduradunekin bilera egin dezan, presazko neurriak zehazteko, N-121-A errepedean istripu kopurua murrizte aldera.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita eskualdeko udaletako arduradunekin bilera egin dezan, presazko neurriak zehazteko, N-121-A errepedean istripu kopurua murrizte aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu Baztan, Bortzirriak, Bertizarana, Malerreka, Zugarramurdi eta Urdazubiko udalek urteak daramatzate N-121-A errepedeko trafikorekin kezkatuta. Orain dela zenbait urte, aldaketa handiak egin ziren errepede horretan, trazadura eta lotune berriak egin baitziren. Bitarte honetan, etengabe hazi da errepede hori erabiltzen duten ibilgailuen kopurua; 10.500 inguru bide dira, horietako asko kamioiak. Ez da denboran atzera asko egin behar eskualdeko udal ordezkarien eta bizilagunen azken agerraldi publikoak aurkitzeko, Gobernuari hartu beharreko neurriak har ditzan eskatzekoak.

Adibidez, 2013ko irailean, heriotza-istripu baten ostean, Iruña eta Frantzia Endarlatsan barrena lotzeko bide nagusiaren bukaera-parteko tartean dauden puntu beltzen zerrenda bat eman zuten. Zerrenda horretan ageri dira Sunbillako bidegurutzeak –2009an horiei buruzko proiektu bat egin zen–, Berako sarbide eta irtenbide guztiak eta, oro har, herrietako sarbideak eta irtenbideak; Berako zentralerako bihurtzea; Lamiarriko tunelaren inguruak; Montoiako bihurtzea; Belateko jaitsiera Almandotz parean, eta abar.

Urte horretako urrian, Belateko tuneletan N-121-A errepedea osorik berririkitzeko ekitaldian, Berako alkatea berriro ere azaldu zen kezkatuta trafikoa astunak, gehiegizko abiadurak eta zenbait tokitan zoladuraren itsaspen ezak dakarten arriskua dela-eta.

Azken bi horiek adibide bat besterik ez dira, Gobernuari askotan helarazi baitiote kezka hori. Halere, Gobernuak, horien berri izanagatik, ez du inolako neurririk hartu.

Azken aste honek berriro erakutsi digu errepede horren aurpegi tragikoa: hiru istripu gertatu dira leku ia berean, bi pertsona hil dira, eta beste bat zauritu. Harridura txikiz eta kezka handiz bizi izan dira gertakariak, Gobernuaren aldetiko utzikeria dagoelako irudipenarekin. Herritarrak gogaituta daude ezer ez egite horrekin eta Gobernuak, haien ustez, istripuak azaltzerakoan aitzakiak jartzearekin. Euriak eremu horretako istripu-kopuruan izan dezakeen eragina onartuta ere, ezin da alde batera utzi euria ohikoa dela alderdi horretan guztian; bestalde, gauza ezaguna eta salatua da gehiegizko abiadura, eta halere istripu ugari tartetan oraindik ez dira murriztu abiadura-mugak.

Hori dela-eta, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeek ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du al bait arinen bil dadin alderdi horretako udal arduradunekin, istripu-kopurua murrizteko neurri urgenteak zehaztu ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du azterlan bat egin dezan istripu ugari tartetako arrisku faktoreei buruz, eta tarte horietako segurtasuna bermatzeko behar diren egokitzapenak egin ditzan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du abiadura-mugak murriztuz ditzan arriskutsuak izan daitezkeen puntuetan, eta muga horiek betetzen direla zaindu dezan.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du alderdi horretako beharrezkoen egiaz erantzunen dien garraio publikoa susta dezan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Foru parlamentariak: Koldo Amezketza Díaz eta Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakume nafarrek haurdunaldia borondatez eteteko duten eskubidea defenda dezan.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakume nafarrek haurdunaldia borondatez eteteko duten eskubidea defenda dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau, zeina 2014ko urtarrilaren 23an eztabaidatuta jabelduratik heldu baita, aurkezten du, 2014ko otsailaren 13ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Parlamentu honen gehiengoak hainbatetan adierazi du bere jarrera, emakumeen sexu- eta ugalketa eskubideen defentsan. Eta gure taldearen iritziz, jarrera hori berriro adierazi behar da, Kontzebituaren Biziaren eta Emakume Haurdunaren Eskubideen Babeserako Lege Organikoaren Aurreproiektua dela eta.

Gure ustez, gaurko legea guztiz era atzerakoian aldatzeko proposatzean, Alderdi Popularraren irizpideek bilatu dute sektore ultrakatolikoekiko eta bizi-eskubidearen aldeko mugimenduekiko elkar aditzea; halaber, atzerapen sozial onartezina dakarte eta larriki urratzen dituzte emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak. Beraz, uste dugu Nafarroako Gobernuak eskura dituen baliabide guztiak baliatu behar dituela eskubide horiek defendatzeko.

Beste alde batetik, Parlamentu honek ezagutu ahal izan ditu Antsoingo klinikan haurdunaldia borondatez etetera joatea suertatu zaien emakumeek jasan behar dituzten koakzio eta larderia zeharo onartezinak. Nafarroan Abortatzeko Eskubidearen aldeko Batzarreko ordezkariak adierazi zuten bezala, inguruabar hori saihestu ahalko litzateke haurdunaldiaren borondatezko eteteak osasun publikoan egingo balira.

2013ko apirilean, Kontuen Ganberaren txosten bat ezagutu genuen, eta hartan gomendio egiten zitzaion Nafarroako Gobernuari, azter zezan presazio hori osasun publikoan eskaintzeko aukera, horretarako profesionalak eta azpiegiturak badaudelako; gainera funts publikoak aurrezteko ekarriko luke. Nafarroako Parlamentuak ere adierazi du eskaera bera, hainbat aldiz. Jadanik 2012ko maiatzaren 10eko Osoko Bilkuran, Nafarroako Parlamentuak mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen haurdunaldiaren borondatezko etetea osasun sistema publikoan eskain zezan 2013tik aurrera.

Beste alde batetik, uste dugu Nafarroako Gobernuak ahalegin berezia egin behar duela sexu-heziketan eta nahi gabeko haurdunaldien prebentzioan, eta beharrezkoak diren neurri eraginkorrak hartu.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Erabaki proposamena:

1. Nafarroak Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du emakume nafarrek haurdunaldia borondatez, eta duintasunez, eteteko duten eskubidea defenda dezan, eta emakume horiek inolako koakzio edo larderiarik ez jasateko baliabide guztiak presta ditzan.

2. Ildo honetatik, Nafarroako Parlamentuak 2012ko maiatzaren 10eko Osoko Bilkuran 8/12/MOC-00027 mozioan onetsitakoa, eta geroago hainbat aldiz berretsitakoa, berriz ere adierazten du, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan, ahalik eta denbora laburrenean haurdunaldiaren borondatezko eteteak osasun zentro publikoetan egin ahal izateko, eta lehenengo eta behin, etete farmakologikoak, horiek baitira egiten diren borondatezko eteteen % 40. Gainera, haurdunaldiko lehenengo 8-9 astean

barruan egin daitezke, eta ez lukete antolaketa-neurri nabarmenik hartzera behartuko.

3. Nafarroako Parlamentuak berriro adierazten du erabat arbuiatzen duela, Kontzebituaren Bizia-
ren eta Emakume Haurdunaren Eskubideen Babe-
serako Lege Organikoaren Aurreproiektua, emaku-
meen sexu- eta ugalketa-eskubideak larriki
urratzen dituen atzerapen sozial onartezina daka-
rrelako. Horiek horrela, Nafarroako Gobernu-
a premiatzen du Parlamentu honen gehiengoaren
eta Nafarroako herritarren gehiengoaren boronda-
teari jarraikiz joka dezan, 2010eko legearen aurka
aurkeztutako errekurtsioa kenduz, eta behar diren
mekanismo guztiak azter eta abian jar ditzan,
emakume nafarrek haurdunaldia borondatez etete-
ko duten eskubidea bermatzeko eta, beraz, inbolu-
zio hori Nafarroan ez gertatzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa har-
tzen du PPK proposatzen duen erreformari aktibo-
ki aurre egiteko, eta babesa eskaintzen die elkarte
feministak eta beste gizarte-mugimendu batzuk,
helburu horrekin egiten ari diren mobilizazioei.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-
nua premiatzen du behar diren baliabide materia-
lak eta giza-baliabideak ezar ditzan, nahi gabeko
haurdunaldien prebentziorako. Helburu horrekin,
behar diren neurriak hartuko ditu, ikastetxeetan
sexualitateari eta afektibitateari buruzko derrigo-
rrezko programak sartzeko, eta horretarako behar
diren irakasleak prestatzeko. Halaber, antisorgailu
guztiak eskuragarri egotea bermatzeko du, emaku-
meak laguntzeko zentron bidez.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da CRANA Fundazioa mantentzen dezan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita CRANA Fundazioa mantentzen dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Berriki, Nafarroako Gobernuak erabaki du Gobernuaren menpeko fundazioak 12tik 4ra murriztea, eta, gainera, sozietate publikoetako hiru kudeatzaile eta fundazioetako lau kentzea. Erabaki hori martxoaren 22an iragarri zen, neurriaren helburua izanik "egiturak mehetzea, Administrazioa efizienteagoa eta herritarrentzat gastu txikiagokoa izan dadin". Neurri horrekin, Nafarroako Gobernuak urtero 940.000 € aurreztu nahi ditu, zortzi fundazioak kenduz, eta zenbateko hori 1,2 milioi eurora igo zazpi kudeatzaileengatik sortutako aurrezpenarekin.

Neurri horrek ekarriko du, sektore publikoko 26 lanpostu ezabatzeaz gain, entitateak eta zerbitzuak desagertzea, munta handikoak direnak gure gizarteko sektore batzuetan eta arlo garrantzitsuetan; esate baterako, ingurumenekoan.

.Esandakoaren adibide bat dugu Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroa fundazioa (CRANA) desagertzeak izanen duen eragina.

CRANA Fundazioa erreferentea izan da iraungarritasuna nafar gizartearen arlo ezberdinetan integratzeko jardunean. Entitate hori gai izan da

aipatu kontzeptuaren dimentsio hirukoitza ulertzeko, eta trebezia izan du Nafarroan maila ezberdinetan transmititu eta integratzeko, Nafarroako Gobernutik hasi eta nafarren etxeetaraino, eta toki entitateetan ere bai, horientzat erreferentea izan baita, ingurumeneko hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren gaietan eta herritarren parte-hartzerako sistemen integrazioan.

Fundazio hori erreferente nazionala izan da, lidergoa eramanez komunitate honetan ordura arte sekula ikusi gabeko Uraren Foroa eta Energiak Batuz Foroa bezalako ekintzen bidez. Foro horiek gizarte-kontsentsuaren markak ezarri zituzten ingurumenaren eta gizartearen hainbat alderditan, ingurumen-bektore horiek kudeatzeko eredu iraungarriagoi begira. Laguntza eman diete toki entitateei hainbat kontzeptu integratzeko; esate baterako, mugikortasun iraungarria, energia aurreztu eta efizientziaz erabiltzea, ibaien kudeaketa eta uraren erabilera efizientea. Aholkularitza prozesuak dinamizatu dituzte nafar enpresa askorentzat, enpresen erantzukizun sozialeko irizpideak sartuz, eta kontsumo iraungarriaren eta bidezko merkataritzaren kontzeptuak sustatu dituzte. 2013. urtean, bakarrik, fundazioa 30.000 pertsonarengana eta talderengana iritsi da. Lankidetzaren publiko-pribaturako ekimenak sortu dituzte, eta denborarekin CRANA elkargune bihurtu da iraungarritasunaren gaitarako, gizartearen eta administrazioaren arteko zubi lana eginez.

Zeregin hori guztiz integratu eta koordinatu da Europako programekin. Haien bidez fundazioak lortu du bere jardueraren kofinantzatzea, eta, Nafarroako Gobernutik kanpoko bestelako ekarpen eta babespen batzuekin batera, CRANAren autofinantzatze maila % 45ekoa izatea bere ibilaldiko 11 urteetan. Gainera, zenbateko hori % 50 baino gehiagora igo da azken bost urteetan.

Fundazio hori funtsezko erreferentea izan da Nafarroako herri askorentzat, ingurumenaren eta herritarren parte-hartzearen arloetan. Horregatik, fundazioa desagertzea kalte larria izanen da herri batzuentzat, ingurumeneko teknikari bat ordaindu ezin eta programa eta proiektu jakin batzuen bidez, CRANAren aholkularitza eta laguntza jasotzen zuten horientzat. Aipatu behar da fundazio horrek Tuteran duen eragina. Parte hartzea eta laguntza eman dio Udalari Mugikortasunaren Plana bezalako ekintzak prestatzeko, Eskola Bide-

ak programa egiteko eta udal instalazioetako energia-auditoretzak egiteko.

Fundazio hori ixteak ekarriko du, ustez, Nafarroako Gobernuak funtzionarioek beraiek eginen dituztela orain arte fundazioak burutzen zituen eginkizunak. Baina agerikoa da horrek orain arte egiten dituzten lanen gaineko bestelako lan batzuk sorraraziko dizkiela, eta gero eta aurrekontu txikiagoekin Horren adibide bat dugu Nafarroako Gobernuak Ingurumeneko Kontseilaritzako Hiri Ingurumenaren Atala kendu izana (CRANAK betetzen dituen eginkizunetan eskumena duten ataleko bat), eta hornidura ekonomikoa kendu diola iraungarritasunerako jardunbide onen sariari. Horregatik, agerikoa da CRANAK orain arte betetzen zituen eginkizunak nekez beteko dituztela, modu "efizientean", administrazioko teknikariek, lan handiagoa eta aurrekontu txikiagoa izanen dute eta.

Gure taldeak uste du neurri horrek izaera populista nabarmena duela, beste murrizketa bat, administrazio publikoa hobetzeko neurri bat balitz

bezala aurkeztu nahi duelako. Hala eta guztiz ere, neurriaren inprobisazioak (langileek berek erabakiaren berri izan zuten hura iragartzeko prentsaurrekoa baino ordubete lehenago) erakusten du aurrezteko modu bat dela, baina zerbitzu publiko efizienteak kenduz, era horretan saiheste aldera administrazioa eraberritzeko beste modu bati ekitea; alegia, administrazioan askoz efizientzia txikiagoa duten alderdiak berritzea, zerbitzuak hobetuz eta diru publikoa hobeki erabiliz.

Fundazio hori kentzea atzerapausoa izanen da ingurumeneko sektorean, Nafarroaren garapenerako giltzarria diren sektoreetako bat den horretan.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du CRANA fundazioa mantentzean, orain arte betetzen zituen eginkizunak bermatzen jarraitzeko.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 28an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zirkulatzailerako abalen lerroa berriz ireki dezan, gutxienez ere 50 milioi euroko zuzkidurarekin.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zirkulatzailerako abalen lerroa berriz ireki dezan, gutxienez ere 50 milioi euroko zuzkidurarekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 187. artikuluan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioa enpresen finantziarioari laguntzeko neurriak bultzatzeari buruz 2014ko urtarrilaren 23ko Osoko Bilkuran defendatutako jabelduraren ondorio da.

Joan den urtarrilaren 23ko jabelduran, enpresen finantziarioari abalen bidez laguntzeko politikak orokorrari buruzkoan, Nafarroako Gobernuaren azalpenak entzun ondoren, honako alderdi hauek egiaztatzen ahal izan genituen:

1. Gobernuak 2013an itxi zuen enpresa txiki eta ertainentzat zirkulatzailerako ematen diren abalen lerroa, eta lerro hori itxita du oraindik ere. Oso adierazgarria da ikustea arrisku bizia 110 M-tik 22 M-ra jaitsi dela 2012-12-31tik 2013-06-30era.

2. Gobernuak, halaber, inbertsiorako abalen lerroa itxi zuen 2013an, eta lerro hori itxita du oraindik ere. Gai honi dagokionez, Gobernuak 2014an 4 milioi euroko lerro bat irekitzeko konpromisoa hartu zuen.

3. Gobernuak, Parlamentuak onetsi dituen bi mozio gorabehera, ez du igo nahi Sodenak finantza-entitate bakoitzarekin bere gain hartzen duen batezbesteko arriskua, EIB lerroko gaur egungo % 30aren esparruan. Era berean, ez du nahi Sodenak % 30 hori zuzenean abalatzea eragiketa bakoitzean, halako moldez non bazkideek rriskuaren % 70 "bakarrik" hartuko bailukete beraien gain.

4. Gobernuak ez du berariazko lerro bat enpresa bideragarriak berregituratzeko prozesuei laguntzeko.

5. Gobernuak elkarren bermerako sozietateei protagonismo handiagoa ematearen aldeko joera du, bereziki Sonagar sozietateari.

6. Gobernuak, aurreko puntuetan azaldutakoaren ondorioz, ez ditu bete Enpleguaren Mahaitik sortutako agirian, "Enpresa-jardueren kreditua eta finantzaketa erraztea" izeneko atalean, bere gain hartu zituen konpromiso gehien-gehienak, eta arrazoia eman digu, zoritxarrez, agiriak ez helburu zehatzik, ezta aurrekontuetako konpromiso jakinik ere ez zeukala ulertu genuenoi.

Beste alde batetik, talde guztiok dakigu ekonomia suspertzea guztiz erronka handia dela, eta horretarako, bestelako lan eremu handi batzuekin batera (nazioartekotzea, I+G+B, barne eskaera

sendotzea), finantzaketa eskuratzea giltzarri bat dela.

Horregatik aurkezten dugu ondoko erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zirkulatzailerako abalen lerroa berriro ireki dezan, gutxienez ere 50 milioi euroko aurrekontu-zuzkidurarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, igo dezan Sodenak finantza-entitateekin bere gain hartzen duen batezbesteko arriskua, EIB lerroaren esparruan, eta behar diren neurriak har ditzan Sodenak zuzenean enpresaren abal-emaile gisa sina dezan eragiketa bakoitzean.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, inbertsiorako abalen lerroko aurrekontu-zuzkidura igo dezan, proposatutako 4 milioietatik 25milioi euroraino.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, enpresa bideragarriak berregituratzeko abalen berariazko lerro bat ireki dezan, 10 milioi euroko aurrekontu-zuzkidurarekin.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, behar diren hitzarmenak egin ditzan elkarren bermerako sozietateekin, kreditu berria sustatzeko, eta horretarako 5 milioi euroko kontu-sail bat ezar dezan.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen baitu Merkataritza-arloko Epaitegiak, Fiskaltzak eta Konkurtso-administrazioak beharrezko azterlana eta ikerketa egitea, Bavaria Industrialekapital entitateak INASA ixteko prozesuan izan lezakeen erantzukizuna zedarritze aldera.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du merkataritza-arloko epaitegiak, fiskaltzak eta konkurtso-administrazioak beharrezko azterlana eta ikerketa egitea, BAikap-Bavaria Industrialekapital AG entitateak eta bere kudeatzaileek, nahita zein zabarkeriaz, INASaren konkurtso- eta ixte-egoerara iristeko orduan izan lezaketen erantzukizuna zedarritze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela merkataritza-arloko epaitegiak eta konkurtso-administrazioak begira dezan enpresako langileei, alargunei nahiz erretirodunei eragiten dien Gizarte Aurreikuspeneko Planean sortutako eskubideak betetzen direla".

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuari eskatzen baitio Europako Gizarte Gutunean ezarritakoaren arabeko araudi-aldaketa bat egin dezan.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak deklaritzen du beharrezkoa dela Estatuko Gobernuak susta dezan 4.123/2012 zenbakiko konstituziokontraktasun errekurtsioan errekurritutako araudiaren aldaketa, Europako Gizarte Gutuneko irizpenetan ezarritakoaren arabera demandari amore emate

aldera. Halaber atzera egin dezan, 8/2013 Foru Legearen aurka –zeinaren bidez Nafarroako osasun-sistema publikoan doako osasun laguntza jasotzeko eskubidea aitortzen baitzaie Nafarroan bizi diren pertsonei– ezarritako 7.089/2013 zenbakiko konstituziokontraktasun errekurtsioan".

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, "Asociación de Cazadores Deportivos de Tudela" elkarteari esleitutako Montes del Cierzo eta Monte Alto ehiza-barrutien kudeaketari eta "Asociación local de cazadores y pescadores deportivos de Tudela" elkarteari ezarritako zehapena betetzeari buruzkoa.

M.ª CARMEN OCHOA CANELA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.ª Carmen Ochoa Canela andreak aurkeztutako galdera, "Asociación de Cazadores Deportivos de Tudela" elkarteari esleitutako Montes del Cierzo eta Monte Alto ehiza-barrutien kudeaketari eta "Asociación local de cazadores y pescadores deportivos de Tudela" elkarteari ezarritako zehapena betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Mari Carmen Ochoa Canelak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Tuterako barrutiaren egoerari buruzko ondoko galderak aurkeztu ditu, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioeko batzordean ahoz erantzuteko:

- Nafarroako Gobernuak aholku eman al zion Tuterako Udalarari eta babestu al zuen haren erabaki bikoitza, "Asociación local de cazadores y pescadores deportivos de Tudela" elkartearekiko kontratua adostasunez ezeztatzea eta Montes del Cierzo eta Monte Alto ehiza-barrutien kudeaketa "Asociación de cazadores deportivos de Tudela" elkarteari esleitzekoa?

- Nafarroako Gobernuak zer neurri hartu ditu ziurtatzeko "Asociación de cazadores y pescadores deportivos de Tudela" elkarteak bete egingen duela 140 hegazti baino gehiago pozoitzeagatik Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuak ezarri zion zehapena, zeinaren bidez ehiza-jarduera bi urtez eten baitzion?

- Zergatik ez da ezarri neurririk (prestakuntza-nahiz ikuskaritza-arlokoak eta abar) barrutien kudeaketan jardunbide egokiak ziurtatzeko eta delitu hain larriak berriro gertatzea ekiditeko?

- Nola liteke elkarte esleipen-hartzaile berriak legez kanpoko bazkategiekiko monteria bat antolatu izana Monte Alto ehiza-barrutian eta hori dela eta hari espediente bat ireki behar izana?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Mari Carmen Ochoa Canela

Galdera, mendekotasuna dutenentzat aitortu bai baina oraindik jaso ez diren laguntzei buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, mendekotasuna dutenentzat aitortu bai baina oraindik jaso ez diren laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako María Victoria Arraizak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Gizarte Politiketako kontseilariak Gizarte Politiketako Batzordean ahoz erantzuteko:

Nafarroan 914 pertsona daude, guztira, mendekotasuna dela-eta aitorturik duten laguntza jasotzeko zain. Iragan abendura bitarte, 17.528 eskabide aurkeztu ziren; alegia, 2012koak baino gehiago, 200dik gorako alde

Laguntza aitorturik baina oraindik jaso gabe duten pertsonekin zer gertatzen ari den jakiteko, honako galdera hauek egiten ditugu:

- Foru Komunitatean zenbat denbora behar da balorazioa egiteko eta ondoren mendekotasunera-ko laguntza aitortzeko edo ukatzeko?

- Zenbat denbora behar izaten da laguntza jasotzeko, behin mendekotasuna aitortuta?

- Gizarte Politiketako Departamentuak taxutu al du estrategiarik edo neurririk, ahal den gehiena murrizteko laguntza horiek aitortzen direnetik jasotzen diren arteko epea?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, botiken berrordainketaren ondorioen gaineko azterlanari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jasok andreak aurkeztutako galdera, botiken berrordainketaren ondorioen gaineko azterlanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamendua dioenari jarraikiz, Nafarroako Gobernuari honako galdera helarazten dio, Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2013ko maiatzaren 9an egindako saioan, Bilduk eta Aralar-Nafarroa Baik aurkeztutako 8-13/MOC-00043 mozioa onartu zuen.

Aipatu mozioaren lehenengo puntua, gainera, aho batez onartu zen, UPNk egindako zuzenketa onartu egin baitzen. Lehenengo puntu horrek honakoa zuen testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharreko azterlanak edo inkestak egin ditzan, halako moldez non hiru hilabeteko epean jakinen baita zenbat erreze-ta gelditu diren erretiratu gabe apirilaren 20ko 16/2012 Errege Dekretua ezarri zenetik, bai eta errezetak erretiratzeari utzitako erabiltzaileen portzentajea ere, errenta txikieneko pertsonen eta pentsiodunen portzentaje zehatza ere zehaztuta”

Geroztik, irailaren 17an, ia lau hilabete igaro zirenean, kontseilariaren agerraldia izan genuen, erabaki hau betetze aldera nolako kudeaketa egin

zen jakiteko. Kontseilariak, orduan, oraindik ez zegoela egina esan zigun, baina azterketa kualita-tiboa egiten ari zirela, eta hiru hilabetean egina egon zitekeela.

Mozioa onartu zenetik bederatzi hilabete pasa direnean, eta Vera anderearen agerralditik lau hila-bete eta erdi, jakin nahi dugu:

Zertan da botiken gaineko berrordainketaren ondorioen inguruko azterketa?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Beriaingo Ikastetxe Publikoaren eraikinak dituen gabeziak konpontzeko aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Beriaingo Ikastetxe Publikoaren eraikinak dituen gabeziak konpontzeko aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak zer jarduketa aurreikusi ditu Beriaingo eskola publikoaren egungo eraikinaren gabeziak konpontzeko?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean dauden espazio-beharrizanei buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean dauden espazio-beharrizanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak ezagutzen al ditu Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialaren espazio-beharrizanak? Jarduketarik aurreikusi al du horri dagokionez?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, BEZarengatik 2014. urterako aurreikusten den diru-bilketari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, BEZarengatik 2014. urterako aurreikusten den diru-bilketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko ahozko galdera egin du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzeko:

Nafarroako aurrekontu orokor baztertuen zirriborroan, Gobernuaren diru-bilketa aurreikuspena,

2014ko BEZari dagokionez, 1095,5 milioi eurokoa zen: horietatik, 379,1 milioi zuzeneko diru-bilketatik helduko ziren, eta 716,4 milioi, berriz, BEZaren doikuntzetatik.

Jakina denez, 2013ko abenduan Nafarroako eta Estatuko gobernuak hitzartu zuten 2013ra aurreratzea ohiko egutegiaren arabera 2014ko martxoan egin beharrekoak ziren behin betiko doikuntzak, 2013ari zegozkionak.

Aurrerapen hori 200,3 milioi eurokoa izan zen. Arrazoizkoa da pentsatzea aurrerapen horrek eragin nabarmena izan duela 2014ko BEZaren diru-bilketaren aurreikuspenean, nahiz eta bi gobernuak hitzartu duten formula hori hori baliatuko dela 2014aren amaiera aldean, 2014ko behin betiko kitapena egiten denean.

• Zein da 2014rako BEZaren diru-bilketaren aurreikuspen gaurkotua, bai zenbateko osoari, bai BEZaren zuzeneko diru-bilketaren eta doikuntzen zenbateko xehakatuak dagokienez?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, 2013ko BEZaren doikuntzen diru-bilketan BEZaren itzulketak 2012tik 2013ra geroratzeko erabakiaren eraginari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, 2013ko BEZaren doikuntzen diru-bilketan BEZaren itzulketak 2012tik 2013ra geroratzeko erabakiaren eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko ahozko galdera

egin du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzeko:

Kontseilari Lourdes Goicoechea andrearen 2014ko urtarrilaren 29ko agerraldian, parlamentari honek espresuki galdetu zion ea BEZaren itzulketak 2012tik 2013ra atzeratu izanak eraginik izan duen BEZaren 2013ko doiketen diru-bilketan. Hala izan baldin bada, ea Gobernuak inpaktua kuantifikatu duen, eta zenbatekoa izan den hori.

Goicoechea andrearen erantzunetik itxura batean ondoriozta zitekeen baietz, inpaktua baze-goela onartzen zuela, baina ez zuen esan ea Gobernuak hori balioetsi duen ala ez; are gutxiago zenbateko zehatza.

Hona galdera:

• Gobernuak balioetsi al zuen BEZaren itzulketak 2012tik 2013ra atzeratzen eragina BEZaren 2013ko doiketen diru-bilketan? Zenbatekoa izan zen inpaktua, milioi eurotan adierazia?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak, urtarrilaren 29an Batzordeak egindako saioan, eman zuen informazio baten interpretazioari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak, urtarrilaren 29an Batzordeak egindako saioan, eman zuen informazio baten interpretazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko ahozko galdera egin du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzeko:

2014ko urtarrilaren 29ko agerraldian, kontseilari Lourdes Goicoechea andreak adierazi zuen 51,7 milioi euroko itzulketak hartu zituztela bere gain 2013an, 2012ari zegozkionak.

Horren interpretazio nire ustez logikoa da zenbateko hori -51,7 milioi euro- dela Nafarroako

Zerga Ogasunak, Nafarroako zergadun guztiakin hartutako kopromisoei jarraikiz, 2012an itzuli beharko zituen BEZeko saldo guztien batura, nahiz eta 2013an itzultzea erabaki zuen, 2012ko defizit-helburua betetzeko.

Hona galdera:

- Arestiko paragrafoan egindako interpretazio hori zuzena al da?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Unescori "Errioxako eta Arabako Errioxako ardoaren eta mahastiaren paisaia kulturala" kultur ondare izendatzeko egin den eskaeran Nafarroako udalak sartzeari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Unescori "Errioxako eta Arabako Errioxako ardoaren eta mahastiaren paisaia kulturala" kultur ondare izendatzeko egin den eskaeran Nafarroako udalak sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Urtarrilaren 31n bukatzen da epea Espainiako Gobernuak Unescori aurkez diezaion, Kultura Ministerioaren bidez, Errioxako eta Arabako Errioxako ardoaren eta mahastiaren paisaia kulturala kultur ondare izendatzeko eskaera.

Urtarrilaren 29an, Nafarroako Gobernuo Kultureko zuzendari nagusiak Espainiako Gobernuo Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeriooko Arte Ederretako zuzendari nagusiari igorritako gutun baten berri izan du gure parlamentu-taldeak, zein角度an eskatzen baita espediente orokorrean sar daitezzen Errioxako jatorri izendapeneko zortzi udal nafarrak, Errioxako udalekin egin zen bezala.

Eskaera hori, antza denez, sartzeko hori justifikatzea bilatzen duen dossier batekin batera doa.

Ezagutzen diren datu horiek ikusita, foru parlamentari honek haxe jakin nahi du:

- Egia al da UPNk gobernatutako udal nafarrek 2014ko urtarrilaren 28a baino lehen eduki zutela eta baliatu zutela dokumentazio hori?

- Dokumentazio hori zergatik ez zitzaien eman ez ukitutako gainontzeko udalei, ez parlamentu-taldeei, zeinek aho batez eskatu baitzuten ekimen hori abiaraz zedin, gutunean bertan onartzen den moduan?

- Nafarroako Gobernuak zer beste ekimen abiarazi ditu gutun hori ministerioari igorri zitzaionetik?

- Nafarroako Gobernuaren ustez, egin zezakeen guztia eta politikoki komeni zen guztia egin al du udal horiek espediente orokorrean sartzeko?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, NA-121 errepidean izandako istripu kopuruari eta kopuru hori murrizteko hartu diren edo hartuko diren neurriei buruzkoa.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztutako galdera, NA-121 errepidean izandako istripu kopuruari eta kopuru hori murrizteko hartu diren edo hartuko diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Sustapen Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Sustapen Batzordean ahoz erantzun dakion:

N-121 errepide nazionalean azkenaldi honetan izandako trafiko-istripuak direla-eta, ondorio larriak izan baitituzte, informazioa eskatzen dugu azken bost urteotan guztira izandako istripu-kopuruari buruz eta alderdi horretako istripu-kopurua murrizte aldera Nafarroako Gobernuak hartu dituen edo hartu behar dituen neurriei buruz.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Galdera, hezur-muinaren transplanteei buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, hezur-muinaren transplanteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Osasuneko zuzendari nagusi Cristina Ibarrola andreak iragan ostegunean –2014ko urtarrilaren 23a– emandako prentsaurrekoan nabarmendu zuen hezur-muinaren 2013ko emaile-kopuru handia Nafarroan, "zeina 9.441ekoa baita; alegia, 2012an baino % 9,92 handiagoa". Zenbateko absolutu horrek esan nahi du tasa 14,7koa dela 1.000 biztanle bakoitzeko, Espainiako tasa baino askoz ere handiagoa, 2,9koa baita 1.000 biztanle bakoitzeko".

Hezur-muinaren ematei buruz emandako datuak ikusita, hauxe jakin nahi dut:

- Hezur-muinaren zenbat transplante egin dira Nafarroako Ospitalegunean, teknika hori ezarri zenetik? Zein izan dira emaitzak?

- Zein da Nafarroako Ospitalegunean hezur-muinaren transplantea egin zaien pertsonen bizi-raupen-indizea urtebetetera, bost urtera eta epe luzeagora, gure erkidegoan transplante hori abian jarri zenetik?

- Nafarroako Ospitalegunean ba al dago hezur-muinaren transplanterako jarduketa-protokolorik? Baldin badago, betetzen al da? Osasun-praktika

horrekin zerikusia duten sozietate zientifiko-
giden araberakoak al dira?

- Transplantea egiten duen lantaldeko kideen artean adostutako protokoloak al dira?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, istripu ugariko tarteen bilakaera analizatze aldera Nafarroako Gobernuak 2014an aztertuko dituen errepideei eta tarteei buruzkoa.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, istripu ugariko tarteen bilakaera analizatze aldera Nafarroako Gobernuak 2014an aztertuko dituen errepideei eta tarteei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva

Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Istripu ugariko tarteen bilakaera analizatze aldera Nafarroako Gobernuak, Sustapen Departamentuaren bidez, 2014an aztertuko dituen errepideen eta errepide-tarteen zerrenda.

Honako informazio osagarri hau ere jaso nahi dut azterlan horri buruz:

– Egiteko epea.

– Kostua.

– Kontusaila.

– Azterlana nola egingen den: baliabide berekiekin ala kanpokoekin. Kasu horretan, baliatuko den prozedura zehaztea eskatzen dut.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Galdera, PA-30 Iparraldeko Ingurabideko eta Artikako errepideko biribilgunean Antsoaingo industrialdeak duen sarbideari buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, PA-30 Iparraldeko Ingurabideko eta Artikako errepideko biribilgunean Antsoaingo industrialdeak duen sarbideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Sustapen Departamentuak idatziz erantzun dezan:

PA-30 Iparraldeko Ingurabideko eta Artikako errepideko biribilgunean Antsoaingo industrialdeak duen sarbideari dagokionez,

- Nafarroako Gobernuak ba al du sarbide hori irekitzeko asmorik?

- Nafarroako Gobernuak ba al du horri buruzko planik? Zein? Zeintzuk lirateke epeak?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko operazio-gelen eraikina ekipatzeko errentari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jasok aurkeztutako galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko operazio-gelen eraikina ekipatzeko errentari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Iragan urtarrilaren 23an jakin genuenez, Osasun Departamentuak rentinga baliatzeko asmoa du Tuterako Reina Sofía Ospitaleko operazio-gelen eraikina ekipatzeko. Neurri hori justifikatzeko adierazi dute ezinezkoa dela beharrezkoa den ekipamendua zuzenean erosteko beharko liratekeen ustezko 2,1 milioiei aurre egitea. Departamentuaren asmoa da 166.000 euro ordaintzea 2014 honetako azken hiruhilekoan, eta 497.000 euro, berriz, 2015etik aitzina.

Nolanahi ere, oraindik ez da zehaztu zer interes-tasarekin eginen den operazioa, zenbat hileko kuota ezarriko diren eta zein izanen den ekipamenduaren kostu osoa.

Hori dela-eta, ondoko galderak aurkeztu ditugu:

1. Departamentuak zertan oinarritzen du ekipamenduaren kostua 2,1 milioi eurokoa izanen litzatekeela? Aurrekonturik egin al da? Halakorik baldin badago, horren kopia ere jaso nahi dugu.

2. Osasun Departamentua zenbat ordaintzeko prest dago kontratuaren amaieran? Zein izanen da azken prezioa?

3. Departamentuak esleipenaren baldintza-orrian zer baldintza jasotzeko asmoa du? Baldintza-orria igortzea eskatzen dugu, baldin eta egin da badago, edo, bestela, dagoen dokumentazioa eta alde zuzeneko azterlanak.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 28an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, 2013ko ekitaldian betearazitako kontusail izendunei buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, 2013ko ekitaldian betearazitako kontusail izendunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2013ko ekitaldian betearazitako kontusail izendunen zerrenda, ondokoak zehazturik kasu bakoitzean:

– Zer departamentu, erakunde autonomo, fundazio edo sozietate publikori dagoen atxikita.

– Parlamentuak onetsitako aurrekontua.

– Azkenean betetako diru-kopurua.

– Kontusail izendun bakoitzaren xedea.

– Onuradun zehatza eta esleipena.

Galdera egiten da jakiteko zein den Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen edukiko kontusail izendunen betetze maila.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroan landa garapenerako aurreikusitako eta benetan emandako funtsei buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan landa garapenerako aurreikusitako eta benetan emandako funtsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Orain dela gutxi jakin dugu Nafarroak 136,5 milioi euro lortu dituela 2014-2020 aldirako Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik, 2007-2013 aldirako esleitutako 112 milioien aldean –zeinak gero, egiazki aplikatzean, 129 milioiraino igo baitira–.

Hedabideetan argitaraturik ikusi dugunez, 2007-2013 PDRaren aurrekontu osoa 580 milioi eurokoa zen, zeinetatik Nafarroak 468 milioi jaritzen baitzituen, eta Europak 112 milioi. .

Halere, dagoen informazioaren arabera, 580 milioi euroko hasierako aurrekontu hori 320 milioi izanen da azkenean, zeinetatik 129 Europak jarriko baititu –112 zeuden aurreikusirik–, eta 191 milioi, berriz, Nafarroako Gobernuak.

Hona galdera:

Zuzena al da aipatutako informazioa, Nafarroak jarri beharreko funts aurreikusiei –468 milioi– eta egiaz jarritako funtsei –191 milioi– dagokienez? Konparagarriak al dira bi magnitude horiek egiazki?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, zerga berriak hitzartzeko prozesuari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, zerga berriak hitzartzeko prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Estatuarekiko negoziazioko zazpi hilabete jarrai galdu ondoren hark hartutako erabakia, BEZaren itzulketak geroratzekoa, hein batean zuzentzen, honako hau jakin nahi dut:

- Zerga berriak hitzartzeko prozesuan horrek guztiak izandako eragina.

- Zerga berriak hitzartzeko prozesuaren egun-egoera.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, 2007tik aurrera, ostalaritzako sektorean, iruzurraren aurkako borrokaren arloko ikuskaritzarengatik izandako diru-bilketari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, 2007tik aurrera, ostalaritzako sektorean, iruzurraren aurkako borrokaren arloko ikuskaritzarengatik izandako diru-bilketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

- Zein izan da diru-bilketa, urtez urte, 2007tik hona, ostalaritzaren sektorean iruzurraren aurka egindako ikuskaritzen ondorioz?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Gobernuaren tributuarloko helburuei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren tributuarloko helburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Iragan urtarrilaren 23an, prensaren bidez eza-gutu ahal izan genuen ordura arte Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaile izandako Idoia Nievesek bere dimisioaren berri emateko idatzitako gutuna. Hartan, Nievesek, dimisioa emateko arrazoiaren artean, Ogasuneko kontseilariaren "zerga arloko helbururik ez edukitzea" aipatzen zuen. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

- Zeintzuk dira egungo Nafarroako Gobernuaren zerga arloko helburuak? Horien kuantifikazioa eta zehaztapena eskatzen dut, zerga-figura ezberdinetan xehakaturik, bai eta helburu horiek betetzeko aurreikusitako egutegia ere.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko

Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko Eriaren Arretarako Unitateko burua kargutik kentzeko arrazoiei buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ospitaleguneko Eriaren Arretarako Unitateko burua kargutik kentzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Eriaren arretarako unitateak Eriaren Arretarako eta Kalitaterako Zuzendaritzaren mende daude organikoki. Orain dela gutxi jakin dugu 2014ko urtarrilaren 15ean kargutik kendu zutela Nafarroako Ospitaleguneko Eriaren Arretarako Unitateko buruak.

Gure ustez unitate horiek funtsezko eginkizuna dutenez osasun-arretaren kalitatea hobetzeko, honako galdera hauek egiten ditugu:

1. Zer arrazoi egon dira Nafarroako Ospitaleguneko Eriaren Arretarako Unitateko burua kargutik kentzeko?

2. Zer irizpide baliatu dira Nafarroako Ospitaleguneko Eriaren Arretarako Unitateko buru berria izendatzeko?

3. Zer helburu zehatz ezarri dira Eriaren Arretarako eta Kalitaterako Zuzendaritzan burutza berriari begira, eta zer epe jarri dira horretarako?

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontuen Ganberako 2014. urterako plantilla organikoa eta erakunde horrek 2013ko abenduaren 31n zituen funtzionarioen zerrenda.

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiek hurrenez hurren xedatzen dute urtero onetsi behar direla erakunde horren zerbitzuko langileen plantilla organikoa eta erakunde horrek aurreko urteko abenduaren 31n zituen funtzionarioen zerrenda.

Hartara, ikusita erakundearen idazkari nagusiak urtarrilaren 13an aurkeztutako proposamena, Ganberako administratzaileak, kontu-hartzaileak eta zerbitzu juridikoek eginiko aldeko txostena jaso ondotik eta Kontuen Ganberako Langileen Batzordea informatu eta hari entzun ondotik, lehendakari naizen aldetik, nire ahalmen eta esku-menak baliatuta, ondokoa

EBATZI DUT:

Lehena. Nafarroako Kontuen Ganberako 2014. urterako plantilla organikoa onestea. Plantilla ebazpen honen 1. eranskin gisa atxikirik doa.

Bigarrena. Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioen 2013ko abenduaren 31ko zerrenda onestea. Zerrenda hori ebazpen honen 2. eranskin gisa atxikirik doa.

Hirugarrena. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igortzea, ezagut dezan eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agin dezan, eta Kontuen Ganberaren web orrian argitaratzea.

Iruñean, 2014ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

1. eranskina
Kontuen Ganberako 2014. urterako plantilla organikoa

Lanpostua	Kopurua	Maila	Araubide juridikoa	Euskarako titulazioa	Izendapen librekoak	Esklusibitatea	Lanpostua	Maila-osagarria	Berariazko osagarria
Lehendakariaren idazkaria	1		G		X				
Idazkari Nagusia	1	A	F		X	55	80,80		35
Auditorea	4	A	F			55	80,80		10
Legelaria	2	A	F			55	63,80		
Kazetari-itzultzailea	1	A	F	X		55	59,80		
Informatikako goi mailako teknikaria	1	A	F			55	40,80		
Auditoretzako teknikari-Kontu-hartzailea	1	B	F			55	50,20		20
Auditoretzako teknikaria	15	B	F			55	50,20		
Auditoretzako teknikaria	2	B	F	X		55	50,20		
Administratzailea:	1	C	F		X	55	58,00	12	
Administraria	5	C	F				46,18	12	
Administraria	1	C	F	X			46,18	12	
Sistema informatikoetako ofiziala	1	C	F				46,18	12	
Mandataria	2	D	F				36,50	15	
GUZTIRA	38								

F: funtzionarioa

G: Kabineteko behin-behineko langilea, izendapen librekoa.

2. eranskina
2013ko abenduaren 31n Nafarroako Kontuen Ganberaren
zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda

Izen-abizenak	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
Ordoki Urdazi, Luis M ^a	A	7	Idazkari Nagusia	Jardunean
Cabeza del Salvador, José Ignacio	A	7	Auditorea	Jardunean
Muruzábal Lerga, Jesús Salvador	A	7	Auditorea	Jardunean
Olaechea Estanga, M ^a Asunción	A	5	Auditorea	Jardunean
Moreno Orduña, Karen	A	3	Auditorea	Jardunean
Ezquerro Royo, José Luis	A	6	Legelaria	Jardunean
Sánchez Lerma, Gemma Angélica	A	4	Legelaria	Jardunean
Arrieta Gutiérrez, Francisco Javier	A	7	Sist. informatikoetako goi mailako tek.	Jardunean
Erbiti Zabalza, Fermín	A	5	Kazetari-itzultzailea*	Jardunean
Biurrun Martiarena, José Miguel	B	7	Auditoretzako teknikari-Kontu-hartzailea	Jardunean
Aurrecoechea Gutiérrez, Miguel Ángel	B	5	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Azcona Díez de Ulzurrun, M ^a Carmen	B	6	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Balduz Gil, Elvira	B	5	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Bobadilla Bacaicoa, M ^a Pilar	B	6	Auditoretzako teknikaria	Eszedentzia berezia
Equiza Maquirriain, M ^a José	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Etayo Salazar, Francisco José	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Fernández Renedo, Blanca Esther	B	6	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Gil Ochoa, M ^a Antonia	B	6	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Herrera Isasi, M ^a Begoña	B	2	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Irigoyen Olaiz, M ^a Lourdes	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Marticorena Chapa, Xavier Iñigo	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Martinkorena Matxain, Miren Edume	B	3	Auditoretzako teknikaria*	Jardunean
Lanpostu hutsa	B	-	Auditoretzako teknikaria	-
Rodríguez Jiménez, Ainara	B	2	Auditoretzako teknikaria*	Jardunean
Sola Mateos, M ^a Pilar	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Zudaire Echávarri, Antonia Aurora	B	6	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Zudaire Echávarri, Rosa Isabel	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Fernández Goñi, Joxe Julen	C	7	Administratzailea:	Jardunean
Casado Redín, Cristina	C	5	Administraria	Jardunean
Elizalde Del Rincón, Teresa	C	5	Administraria	Jardunean
Elizalde Elizalde, M ^a Julia	C	7	Administraria*	Jardunean
Lander Laurenz, M ^a Isabel	C	6	Administraria	Jardunean
Pérez de Albéniz Andueza, M ^a Francisca	C	5	Administraria	Jardunean
Lanpostu hutsa	C	-	Administraria	-
Pueyo Resano, Francisco Javier	C	5	Sistema informatikoetako ofizial tek.	Jardunean
Almingol Muñoz, Jesús Emilio	D	6	Mandataria	Jardunean
Zudaire Echávarri, M ^a Trinidad	D	6	Mandataria	Jardunean

* Euskara tituluduna